

285. alea - 2023ko ekaina
Debako herri aldizkaria

Zuhertza deba euskara
elkartea

Berriketan



**EAJ-PNVko
Alazne Txurruka
da herriko alkate berria**



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Ostolaza, 5
DEBA

Tel.: 943 191 197



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziarko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k kutxabank



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com

AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARRROA - 94 683 29 75
ERMUJA - 94 317 44 35
Eto Deba: Herri Tokiaren:
www.torrealday.es

BOHÈM BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM



ARENA BAR



Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN

285

2023ko ekaina

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



9 HAUTESKUNDEAK
EAJ-PNVk Debako alkatetza lortu du, Orain Debaren babesarekin



13 GEHIGARRIA
Debabarreneko turismo eskaintzari buruzko gehigarria prestatu du DKT-k



32 ERREPORTAJEA
Hamar urte bete ditu Iturri Ondoan egitasmoak; egitarau berezia dakar aurten



34 ALBISTEAK
Ondarearen Europako Saria jaso dute Deba-Mutriku zubien birgaitze lanek



35 ALBISTEAK
Kimetz Oñederra, Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako finalista



36 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Zuhatz euskara
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatza Euskara Elkarte
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

**Salbe, publikoa**

"Salbe, publikoa!". Agirre jauregian hori esanez eman genion hasiera hogeita hamaseigarrena izango zen Antzerki Asteari. Berriro ere gure ikastaro amaierako pieza osatu eta eskaintzera iritsi baikinen. Salbe, desagertzear dagoen publikoa salbatu nahian.

Edabe magiko bat prestatu genuen eta, edabe haren lurruna eta kea usaindu eta arnastearekin batera, ikuslea antzerkizale amorratu bihurtuko zen; hark sarrerak hamarnaka erosi eta lagunen artean oparituko zituen, eta Aldats pilotalekuan antzerki obra guztien zain lehena izango zen ilaran.

Tan, tan, tan

Baina zer da hori? Zer da etengabe entzuten den soinu hori? Zer da antzerki obrari gailentzen zaion hots hori?

Tan, tan, tan

Ur-hotsa da! Frontoiaren atzeko hormari zerion uraren soinua da! Eta publikoa, halabeharrez, hots horrekin urduri.

Kar, kar, kar

Baina zer da pilotalekuaren atzealdean entzuten den soinu hori?

Kar, kar, kar

Jendea kanpoan barrezka ari da, ozen. Eta publikoa gogaitua.

Eta, bat-batean, auzokoeke euren etxeetara igotzeko igogailua hartu dute. Zarata. Eguzki izpiak, agertokiaren argiztapena oztapatuz. Publikoa atsekabetuta. Hori gutxi ez, eta pilotalekuko harrizko eserlekuek publikoaren ipurmasailak egurtzen dituzte. Publikoa deseroso.

Edabeak ez zuen bere efektua egin. Aldats pilotalekua ez zen bete. Edabe bat baino gehiago, espazio bat behar dugulako: antzerkia ikusteko baldintza duinak dituen espazio bat.

Salbe, publikoa!

Zuek gabe gu ez gara existitzen.

Goaz Antzerki Taldea

Hemen da Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista

Ekainaren 10ean Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista aurkeztu genuen Bilbon. Pasa den urtetik martxan dabilen Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatua honen barnean kokatzen da. Azken urte hauetan, Euskal Herrian, hainbat etxebizitza sindikatu sortu dira Mugimendu Sozialistaren baitan. Maila lokaletik antolakuntza nazionalera pasatzeko beharraren isla da Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren aurkezpena.

Bilbon egindako aurkezpena ez da marka berri baten aurkezpen soila, doako etxebizitza duin eta unibertsalaren aldeko proposamen politiko oso bat baizik. Alderdi parlamentarioen esanetan, etxegabeteak iraganeko kontuak dira, baina azken hilabeteen Erandion, Hernanin eta beste hainbat lekutan eman diren etxegabeteek egia gordina zein den erakutsi dute. Etxegabeteek gain, etxebizitzaren arazoa larrituz doa: alokairuaren prezioa maximo historikoetan dago EAEn, 3.000 etxebizitzatik gora daude hutsik Nafarroan, etxebizitzen ia % 30 luxuzko etxebizitza da Ipar Euskal Herrian, 700 etxegabete baino gehiago izan ziren EAEn 2022an, 3.600 lagun inguru bizi dira kale gorrian Euskal Herrian eta etxebizitzen bahitura kasuek ugaritzen jarraitzen dute, besteak beste.

Proletariotzaren bizi-bitartekoak garestitzen ari diren honetan, oinarrizko bizi-bitartekoetara iristen ez direnen kopurua gero eta handiagoa da. Etxebizitza eskubidea sistematikoki ukatua zaio proletariotzari. Honen aurrean, Etxebizitza Sindikatu Sozialistatik antolakuntzarako deia egiten dugu. Kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den etxebizitzaren alde, Estatu Sozialista eraiki.

Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi esindikatu.debabilara@gmail.com helbidera edo deitu 671 19 59 24 telefono zenbakira.

Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatua

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk.20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



RIKARDO IDIAKEZ

Salba dezagun mundua

Burgeskumeok, egin dezagun jolas. Ezkertiar ustekook ere lasai, ez apuratu, guztiok har dezakegu parte.

Joko-arauak bi dira.

Lehenengoa, zerrenda bat egitea, hauexekin: norbere etxeko urte osoko gas, elektrizitate eta ur-kontsumoa zenbatu eta erdira jaitsi. Euskadi tropikalean ez dugu hozketa handirik, Fagor Elektrogailuen kooperatiba itxi zen aspaldu eta astean bi aldiz dutzatzea nahikoa da elkarbizitza sana bermatzeko. Hil osoko jan-edanen zerrenda egin eta erdiak ezabatu; ez gara gose eta egarriz hilko, ez. Etxean kotxe(et)an gastatzen duguna erdira jaitsi; bi kotxe baditugu bat saldu edo oparitu eta bakarra duzuenok hileroko egindako kilometro-ilada erdira ekarri (bai, autobuserako txartelak erdi prezioan daude oraindik). Online-erosketekin zorrotzagoak izango gara: akabo, bapo; Belgikatik ez dago ezer ekarri beharrik. Janzkiekin, berriz, erdira ez, urte osoan arropatan gastatzen duguna laurden batera murriztu beharko dugu; etxeko ispi-luak erretiratu eta akabo lotsak. Bukatzeko, neurri polemikoena: taberna eta jatetxetako gastua erdira (bakarrik) jaitsi; eta bai, ez da horren zaila, egungo gazte gehienek lortu dute (halabeharrez) eta gerriko minez gaudenoi errecondoko petrilean eseritako kale-edanaldiak ez digu ondo-ezik areagotuko. Hipotekak ez ditugu ukituko, ez; gai sensiblea litzateke bestela herentzian etxea jaso duzuenokin sasi-eztabaidan hasteko.

Bigarrena: ezin da ezer kontatu, ezin diogu inori mundua salbatu izanaren balentriaren berri eman, ezta instagramen publikatu ere. Egin eta ixildu.

Sinetsita nago lehen araua uste eta desio izan baino aiseago bete genezakeela; bigarrenarekin, baina, galtzak bete lan.

"Sinetsita nago lehen araua uste eta desio izan baino aiseago bete genezakeela; bigarrenarekin, baina, galtzak bete lan"

Taxi Alain Deba
LIZ.-ZK.: 3
www.taxideba.eus
636 135 008
alain@taxideba.eus

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAR

Zuhaitzaren kulturaz jabetu

INA OIARTZABAL ERRASTI

Idatzi honen bidez, herrian bertan daukagun zuhaitz aberastasuna eta natur ondarea ezagutarazi eta zabaltzeko eskaera egin nahiko nuke. Eskualdean sortutako *Historiaurreko Bailara* proiektu interesgarriarekin egin den bezala, gure hurbileko historian eta gero eta urrunago dugun naturan ere arreta berezia ipini nahiko nuke, bereziki zuhaitzen inguruko jakiturian.

Urte batzuk daramatzat Eibarren bizitzen. Eibarrek baditu mendi ederrak inguruan, baina hiriaren hutsunerik handienetakoa belargune eta zuhaitzez betetako espazio naturalen falta da; alegia, lasai egon, jolastu, arnastu edo txorien kantak entzun ahal izateko espazioen falta. Deban, aldiz, aspaldi lortu ziren herrian bertan zuhaitzez betetako espazio natural ederrak. Bere garaian, borroka gogorak izan ziren Calbeton zumardian etxeak eta txaletak egin nahi zituztenen eta kontra zeudenen artean. Baina azkenean lortu zuten, igarle edo ameslari batzuei esker, zuhaitzi eta berdegune eder horiek mantentzea.

Azkenaldian, inoiz baino gehiago, zumarditik paseatzen nabil nire amarekin. Umetan, ordu asko pasatakoak gara paraje honetan. Nola ez gogoratu zuhaitzetara igotzen edo jolasten pasatako orduak! Nola ez gogoratu kiosko atzealdean egindako bihurrikeriak (beste gai bat bada ere, guretzat balio sentimentala izan dezakeen arren, balio estetiko-arkitektoniko gutxi eta erabilpenik ez duen eraikina, nire ustez)! Nola ez gogoratu umetako krosaren urduritasuna edo, Amaiak Bateko jokalaria ginenean, Salegi, Aldamar edo Muñozguren entrenatzaileekin paraje eder honetan egindako korrikaldiak!



Garai haietan ez ginen inguruaren benetako balioaz ohartzen. Orain, berriz, zumardian paseo lasaiak egitean, amaren txundipen hitzak entzuten ditut behin eta berriz. Bertatik pasatzen garen bakoitzean, zumardiari eta bertako zuhaitz aniztasunari buruzko goraipamenak besterik ez ditut entzuten. Ibilalditxoetan urtaroen itxura-aldaketaz jabetu gara eta udazkenetako zuhaitz gehienen hosto-galtzeak ikusi ditugu. Jose Luis Albizuren ezagupenei esker, gehienak kimatu dituzten arren, indigaztainak, gerezi japoniarrak edo ezkiak adarrekin gelditu direla ere jakin dugu. Baina zuhaitziaren edertasunaz jabetzearekin batera, zumardiaren historiaz eta zuhaitzei buruz dudak ezjakintasunaz jabetu naiz. Izan ere, platanondoak edo beste zuhaitz gutxi batzuk identifikatzeaz gain, ezer gutxi dakidala ohartu naiz. Noiz osatu zen Calbeton zumardia? Zenbat zuhaitz daude bertan edota erreka inguruan? Zein motatako zuhaitzak ditugu? Noiz inausi behar dira?...

Herrian bertan halako ingurune naturala eta hainbeste zuhaitz motaz osatuta dagoen zuhaitzi naturala duten herri gutxi izango dira munduan. Horregatik, dugun aberastasuna eta jakinduria galdu ez dadin, eta gure hurbileko ondarea eta jakituria (zuhaitzei buruzkoa bereziki) ondorengoei transmititu diezaiegun, *Historiaurreko Bailara* proiektuaren antzera, era xumeagoan bada ere, herrian ditugun zuhaitzen inguruko ibilbidea egitea proposatzen dut, *Debako Zuhaitzen Ibilbidea*, hain zuzen.



ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2105/049
NIVEL 2



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



IRAIA AGIRREZABALA

Argazki bat baino gehiago

Udaletxeko kristaletan ezarritako argazkien harira, nire inguruan behintzat argazki batek eman du batez ere atentzioa. Bertan, plaza berria agertzen da, Arriolaneko denda parez pare (gaur egun Izenbe taberna dena) eta etxe-buelta guztia astoz beteta. Badirudi herriko bizitza hori eta baserriarren joan-etorri hori duela 200 urteko kontua dela, baina nire gurasoek, eta haiek bezala 60 urtetik gorakoek, bizi izan dute.

Zer pentsatua eman dit hain denbora gutxian lurrarekiko eta inguruarekiko lotura eta harremana zenbat aldatu den ikusteak. Asto horiek inguruko baserrietatik zetozen, gehienetan bertako emakumeren batek lagunduta, bertako barazki, arrautza, esnea eta abar bezeroei banatzera, eta estua zen haien arteko harremana. Irudipena dut jakintza partekatu horretatik gero eta deskonektatuago gaudela, etengabe konektatuta gauden gizarte honetan.

Ni zorte oneko sentitzen naiz bizimodu horren testigantzak jaso izan ditudalako. Kontatu izan didate, batetik, nola jaisten ziren baserrietik astoa kargatuta eta Lapurtzulo edo beste hainbat lekutan hainbat abentura bizita, eta, bestetik, hasieran aipatutako dendaren ondoko portalera astoak nola sartzen ziren atea zabalik sumatuz gero, eta Arrasketako Maritzuk atera behar gero animalia.

Udako solstizioaren buelta hau inguruaz gozatzeko momentu ederra da. Baina argi orduak gutxitu ahala, barrura sartzeko gogoa handitzen zait eta barnera begiratzeko beharra ere bai. Momentu horiek ederrak dira argazki honi eta antzeko irudiei hitza jartzeko, gure inguruko aitona-amonei hitza emateko.

"Irudipena dut jakintza partekatu horretatik gero eta deskonektatuago gaudela, etengabe konektatuta gauden gizarte honetan"



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



PATXI AIZPITARTE

Jose Antonio Pagola

Duela urtebete inguru kaleratu zuen Juan Pagolak, kazetaria eta Deustuko Unibertsitatean komunikazio gaietan irakasle denak, bere osaba Jose Antoniori buruzko elkarrizketa liburua. Interesgarria benetan. Buru argikoa, langile porrokatua, irribarre sanoduna eta umore onekoa, elizgizon ezaguna dugu Jose Antonio, hogeitaka urtetan gure elizbarrutiko bikario nagusi izan baitzen eta hainbat hitzaldi eman eta ospakizun burutu baititu gure parrokitan. Donostian bizi da gaur egun, baina Añorgakoa dugu jatorriz. Apaiz ordenatu ondoren, Erromako Gregoriana Unibertsitatean eta Institutu Biblikoan ikasiko zuen, baita Jerusalemen ere (L'École Biblique et Archéologique Française).

Itzultzean, irakasle lanetan arituko zen Donostian eta Gasteizen, gero seminarioko erretore izanez eta, azkenik, bikario nagusi. On Jose M^a Setienekin batean, Vatikanon II.aren espiritua eta proposamenak Gipuzkoako elizan txertatzen eta bultzatzen saiatu zen. Narratzaile eta komunikatzaile aparta, zenbat gizon-emakumek irakurri ote zuten hogeita hamahiru urte luzez igandean Diario Vasco egunkarian publikatzen zuen Ebanjelioari buruzko zutabetxoa? Honez gain, lan eta liburu ugari kaleratu ditu, horien artean ezagunena *Jesus: hurbilketa historikoa* izanik, dozena bat hizkuntzatara itzulia.

Galileako laku ertzean pasatako asteek eragin berezia izango zuten bere bihotzean eta, ordutik, Jesusengana itzultzen den Eliza baten ametsari eutsi dio, nazaretarraren irudia eta mezua bizitzen eta hedatzen saiatuz aspergabe. Baditu 86 urte, baina hor dirau, gure gizarte eta Elizaren gorabeherak argitasunez jarraituz, bere ekarpena egiten jarraituz eta jarrera itxaropentsuaz biziz.

"Galileako laku ertzean pasatako asteek eragin berezia izango zuten bere bihotzean eta, ordutik, Jesusengana itzultzen den Eliza baten ametsari eutsi dio"



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Jeltzaleak alkatetzan, Orain Debaren babesarekin



Gilen Garciarena eta Alazne Txurruka jeltzalearena eta azken hark hartu du agintea, aldeko zazpi botorekin (EAJ-PNVren seiak eta erabakigarria izan den Orain Debaren bat). Garciak koalizio albertzalearen babes osoa lortu zuen (sei boto), baina ezin izan dio alkate karguari eutsi, azken udal hauteskundeetan ere EH Bildu lehen indarra izan zen arren.

dute, zinegotzi gazteenak eta zaharrenak, hurrenez hurren, eta hautetsi guzti-guztiek egin zuten zin. Hamahiru kide dira guztira (sei emakumezko eta zazpi gizon): EAJ-PNVkoak sei, EH Bilduko beste sei eta Elkarrekin Orain Debako bat. Ohikoa den legez, orain arte alkate izan denak eman zion zumitzezko uztia alkate berriari.

Debako udalbatza berria eratzeko bilkura egin zen ekainaren 17an eta, bertan, EAJ-PNVko zerrendaburu Alazne Txurruka hautatu zuten alkate, lepo bete zen osoko bilkuren aretoan.

Alkatetzarako bi hautagaitza izan ziren lehian, EH Bilduko

Aurretiko asteetan iragarritako bidetik eta ezustekorik gabe joan zen, hortaz, osoko bilkura eta aurreikusi bezala eratuta gelditu zen datozen lau urteotarako udalbatza. Adin mahaia Gilen Garciak eta Isidro Aristik osatu

Deban alkate kargua hartzen duen bigarren emakumezkoa da Txurruka (Alternatiba Eraikitzeneko Maider Zubikarai ere jardun zen karguan 2012-2015 bitartean). EAJ-PNVk, Iñaki Elosua buru zela, orain 40 urte hartu zuen azkenekoz udalerriko gobernuaren gidaritza.



Alazne Txurruka



Asier Urain



Mónica de Prado



Jon Riaño



Anton Garay



Ainhoa Urbieto



Isidro Aristi



ehbildu

Gilen Garcia



ehbildu

Itziar Irizar



ehbildu

Antxoka Elorza



ehbildu

Oihana Irusta



ehbildu

Aritz Larrañaga



ehbildu

Edurne Aristi

6 zinegotzi
Botoak:
1.286
% 43,23

6 zinegotzi - Alkatetza
Botoak:
1.184
% 39,80



1 zinegotzi
Botoak:
353
% 11,87



0 zinegotzi
Botoak: 73 • % 2,45



0 zinegotzi
Botoak: 15 • % 0,5

Parte-hartzea: % 68,87

Arantza Egañak bigarrenez hartu du Itziarko Auzo Udaleko aginte makila



karguari dagokion aginte makila Arantza Egaña Itziarko Auzo Udaleko alkateak ere, bigarrenez, Apaizetxea eraikineko batzar aretoa bete-bete zela.

Kargua hartzean azpimarratu zuen "erantzukizunez" jaso duela berriro ere aginte makila. "Hauteskundeetako emaitzek eta jaso dudan babesak zilegitasun osoa ematen didate esanguratsua den makila hau esku artean hartzeko. Ohore bat den arren, erantzukizun handiz jasotzen dut".

Aurrerantzean ere elkarlanerako deia egin zuen. "Aldaketak ditugu Debako Udalean, eta EAJko

Alazne Txurruka izango da alkatea. Erronka ugari irudikatzen ditugu Itziartik eta, auzo udal gisa gure agenda propioa dugun arren, Debako udalerrria osatzen dugun guztion artean eta elkarlanean eraman beharreko arlo estrategiko ugari daude mahai gainean". Lantalde berriari "azken lau urteetan emandako aurrerapausoei eta koordinazio lanari" jarraipena ematea eskatu zion.

Ekitaldian aipatutakoaren arabera, agintaldi berriko lehen osoko bilkuran izendatuko dituzte Egañarekin batera lantaldea osatuko duten lau batzarkideak.

K redentzialen aurkezpena eta bestelako legezko egitekoak osatu ondoren, ekainaren 17an hartu zuen

EAJ-PNV izan da Batzar Nagusietarako lehen indarra Deban

D uela lau urteko joera mantenduz, Deban EAJ-PNV izan da alderdi bozkatuena Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, 1.238 boto eskuratuta (botoen %41,92). Hala ere, behera egin du 2019ko datuekin alderatuta, orduan 1.365 boto lortu baitzituen (bozen %43,62). Oso gertu ibili da EH Bildu azken emaitzetan, bigarren indar bozkatuena izan baita, jeltzaleekiko boto bakar baten aldearekin;


1.237 boto izan ditu koalizioak, botoen %41,88, eta gora egin du orain lau urteko emaitzekin alderatuta, 21 boto gehiagorekin. Bestalde, PSE-EEk 194 boto izan ditu (bozen %6,56), Elkarrekin Podemosk 163 (botoen %5,51), PPK 43 (botoen %1,45) eta Stop-ek 22 (botoen %0,75).

Deba-Urola barrutian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan, ordea, EH Bildu izan da nagusi.

> Deba



> Gipuzkoa



Eskualdean, EH Bildu nagusi



Eskualdean EH Bildu lortu du boto gehien, bigarren indarra den EAJ-PNVk baino 1.166 boto gehiago eskuratuta. PSE-EE izan da hirugarren indarra 7.760 botorekin eta laugarrena, berriz, Elkarrekin, 2.302 boto jasota. PPK 1.457 eskuratu ditu.

Herriz herriko emaitzei dagokienean, Mutriku, Deban, Mendaron eta Soraluze nagusitu dira koalizio abertzalekoak (azken bi horietan aurretik EAJ-PNV

zegoen alkatetzan); EAJ-PNV bi herritan izan da garaile bozetan: Mallabian eta Elgoibarren; eta, azkenik, PSE-EE izan da indarririk bozkatuena Ermuan eta Eibarren.

Hiru alderdi nagusiek jaso dituzte 2019an baino boto gutxiago. Guztien artean, PSE-EE izan da jaitsierarik handiena izan duena, 2.371 boto galdu baititu. EAJ-PNVk ere boto galera handia izan du eta bailarako alderdirik bozkatuena izateari laga dio.

> Udal hauteskundeak Debabarrena



Uztailaren 23an, Espainiako Gorteetarako bozak



Udazkenean edo beranduenez urte amaieran egitekoak zituzten gorteetarako hauteskundeak aurreratu egin ditu Espainiako Gobernuako presidente Pedro Sanchezek. Uztailaren 23an egingo dira.

Maiatzeko hauteskundedetan PSOEk lortutako emaitzen ostean iragarri zuen Espainiako presidente Pedro Sanchezek hauteskunde orokorrak uztailaren 23ra aurreratu dituela. Udal eta foru hauteskundeetan bihamunean bertan egin zuen deialdia.

Espainiako hiri eta erkidego nagusiak galdu ditu PSOEk, Alderdi Popularraren mesedetan. Eta bere alderdiak izan duen boto galera bere gain hartu du Sanchezek, bozak aurreratzeko erabakia hauteskunde emaitzak ikusita hartu duela aitortuz. "Gobernuako presidente eta PSOEko idazkari nagusi gisa, nire gain hartzen ditut emaitzok. Orain, Espainiako

herritarrek argitu beharko dute zer politika mota egitea nahi duten, eta zer indarrek bultzatu behar dituen politika horiek. Onena da herritarrek hitza hartzea herrialde honen norabidea erabakitzeko», nabarmendu zuen.

Horiek hala, berriz ere botoa ematera deituta daude herritarrak uztailaren 23an. Espainiako Gorteetarako hauteskundeak 2019ko azaroan egin ziren azkenekoz.

Kongresurako eta Senaturako hautagaitza berriak ekainaren 27an aldarrikatu ondoren, hauteskunde kanpaina uztailaren 7an hasi eta hilaren 21ean bukatuko da. Estatuan bizi direnek uztailaren 13ra arteko epea izango dute posta bidezko botoa eskatzeko.



1889ko abuztua

Irteera traineruan

Policarpo Elosegui Ansolak ateratako argazkia da goikoa. Bertan, udatiar talde bat agertzen da itsasadarrean, arrantzarako traineru batean Iruroingo merenderora egindako paseoa. Deigarria da ontzian doazen bidaiariaren kopurua bera; 25 pertsona rotara, horietako asko emakumeak eta haurrak. Ontziaren atzeko aldean, txopan, paseoa girotzen diharduen gitarrista bat ere ikus daiteke patroiairen alboan.

Alex Turrillas Aranzeta

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

MAIEDER Eider Sampayo
horts klinika Maialen Linazasoro

Implanteak eta kirurgia
Periodontzia - Endodontzia
Estetika eta zuriketak
Protesiak - Odontopediatria
Azido hialuronikoa
Aho-aurregi eta ATM alterazioak

Zarautz
Kale Nagusia 9-1
943 13 32 69
722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com

A person wearing a blue jacket and a backpack is walking away from the camera on a dirt path that winds through a dense forest. The trees are tall and thin, and the ground is covered in green moss and ferns. The atmosphere is misty and serene.

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

**Barruratu zaitez
Debabarrean**

Pilotarien eskutik

ERMUKO FRONTOIEN ETA PILOTARIEN JAIOTETXEEN IBILBIDEA

Ermua tradizio pilotazale handikoa da eta kirol honetako modalitate guztietan jokatu duten ehundik gora profesional eman ditu herriak, batzuen lorratza kale-izendegian bertan ere jasotzen delarik. Herrian zeharreko ibilbide xumea proposatzen dugu eskuz, palaz, zestaz eta erraketaz, “Ermua” izena munduko txoko askotara zabaldu duten gizon-emakume haiek pilotan trebatu ziren frontoiak ezagutuz eta batzuen jaiotetxea kokatuz.

Sallabenteko frontoia

Herrian sakabanatuta dauden zortzi frontoiei, Sallabentekoan emango diogu hasiera. Zaldibarko lurretan kokatua, auzo horretako umeteriaren bilgune eta jolas-leku izan da beti. Ermitaren hegala ezkerpareta egiteko aprobetxatu zen, jatorrizko leiho ojibalak mantenduz, eta 1955eko San Lorentzo egunean inauguratu zen. Hantxe ekin zion eskuz Santi Agirrek eta eskolatik bueltan sarritan aurkari izaten zuen Charo de Cruz, gerra erraketista izango zena. Bertan zaletu zen ere Ernesto Vieira palista, profesional mailan debutatu duen azken ermuarra.

Frontoi Barrixa

Herrigunerantz abiatuko gara, Batzokiraino. Ostein frontoia du: 1935an eraikia, Frontoi Barrixa bezala ezagutzen zuten. Astero batzen dira bertan gaur egun ere pala edo esku-pilotan jarduteko, eta bilgune bihurtu da pilota eta hark dakarren lagunartea maite dutenentzat.



Plazako frontoi nagusiaren ondoan, hainbat pilotariren jaiotetxeak. E. GONZÁLEZ

Elizpeko arkupeak

Izelaietatik behera elizpeko arkupeetara ailegatuko gara: frontoia izan zen hori ere eta plazakoan lekurik ez zegoenean haraxe joaten ziren herriko umeak eta gazteak. Eskuz, barrusetara jokatzek zuen estimazio handiena. Meza orduetan ez, jakina, ze klas! eta klas!, pilotaren horma-hotsak barruko guztiak aztoratzen zituen.

Areitiotarrak

Gertu, Santiago plazako arkupeen gaineko etxeari pilota usaina da-

**Erdikokalen etxe
gehienek dute
pilotarien lorratza:
puntistak, palistak,
errakekistak...**

rio: hortxe jaio ziren Angel eta Felix Areitio zesta-puntista entzutetsuak eta Solozabal anaia guztiak: Dani palista eta Miguel, Ignacio eta Alex puntistak. Victor Yarza euron lehengusu pilotari puntista ere, etxe berean biziko zen gerora.

Erdikokaleko pilotariak

Erdikokalera eramaten gaituzte gure pausuek eta etxe gehienek pilotarien lorratza dute, bertan jaio edo bizi zirelako: 5. peoran Rosendo Garate puntista eta Felix eta Jose Andres Izagirre palistak, 6an Juan Jose Ibarrola, 7an Nikolas Lizundia, 8an Juan Jose Solozabal eta Jose Luis Izagirre eta 10ean Eduardo Unamuno, bostak zesta-puntan aritutakoak. Azkenik 11n Zubizarreta anai-arrebak: Rosario eta Eladia erraketan, Ignazio eta Fernando zestan.



Sallabenteko frontoia. ESTIBALITZ GONZÁLEZ.



Santiago plaza eta Erdikokale. E. G.

Felix Izagirre "Txekorra"

Erdikokaletik plazara, nahi eta nahi ez Felix Izagirre Zeharbidetik igaro beharra dago, jaio eta bizi izan zen etxe bien artean. Frontisaren ondoan, plaka-eskultoriko batek gogora ekartzen digu "Txekorra", bere sasoiko palistarik distiratsuenetakoa, hantxe hasi zela pilotari hautsak ateratzen. Herriko frontoi nagusiak plazaren zatirik handiena hartzen du eta desafio, partida eta une gogoragarrien testigu izandakoa da, profesional zein afizionatu mailetan.

Cantabria Zeharbidea

Gertu dago ere Cantabria Zeharbidea, esku-huskan eta palan nabarmendutako Bernardo eta Toribio Garate anaien omenezkoa. Erdigune aldean erraz egin daiteke topo Juan Luis Arrarte, Miguel

Altuna, Eusebio Yarza, Nikolas Mugerza, Miguel Okariz edo Dani Solozabal pilotari puntista ohiekin. Zubiaurre kalean aurrera jarraituz, arbola artean Igartuaneko etxea dugu: Irene Ibaibarriaga erraketistaren bizileku, Rosario, Poli eta Bitxori erraketisten ahizpa eta Bizente puntistaren arreba izandakoa.

Lau frontoi gehiago

Pasealeku atsegina da Pagorbe ingurutik Ongarai auzora eramaten gaituena, eskola gunera. Ber-

tan hiru frontoi topatuko ditugu: Anaitasuna Ikastolan, Ongarai Eskolan eta Ermua BHI Institutuan. Herrira jaitsiz berriro, Arizmendi pilotalekua dugu San Pelaion. 1984an inauguratu zenetik, esku-pilota eta pala dira bertan jokatutako diren modalitateak, eta bere instalakuntzak beste kirol batzuetarako ere erabiltzen dira, euriarekin herriko ospakizun ugariaren atargune izateaz gain.

"Bertako Bilduma"

Ibilbideari amaiera emateko Udal Liburutegira gerturatuko gara: "Bertako Bilduma" dugu bertan, pilotarien gaineko hainbat argazki eta prentsa-artikulu gordetzen dituen. Etxeratu osteko atsedenean on-line ere kontsultatu daiteke Udaleko webgunean, "Ezagutu Ermua" atala klikatuz eta "Tokiko Bilduman" arakatzu.

Liburutegiko "Bertako Bilduma" k pilotarien gaineko argazkiak eta prentsa-artikuluak gordetzen ditu.



12 millas
nautika eskola

Bidaiak, esperientzi ahaztezinak eta titulazioak lortzeko aukerak!!



Nabegaziko lizentzia



Onarrizko Nabigazio patroli titulazioa



Jolas ontziko patroli titulazioa



Yateko patroli titulazioa



Yateko kapitain titulazioa

www.12millas.es / 609 245 100 / Toletxe kalea, 13 - ELGOIBAR




"2024rako Oizeko Ibilbide Megalitikoa martxan jartzea aurreikusten dugu"

JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA ARKEOLOGOA

2021ean ekin zioten Agiri Geoarkeologia Elkartek eta Mallabiko eta Berrizko Udalek Oiz mendiko proiektuari, Juan Carlos López arkeologoa buru, eta urteotan hainbat aurkikuntza egin dituzte.

Zenbat monumentuk osatzen dute Oizko estazio megalitikoa?

Proiektu honekin hasi ginenean, Eusko Jaurlaritzak sei monumentu zituen Kultura Ondasun gisa kalifikatuta, baina lehen azterketa batean haietako bat baztertu genuen, ez baitzelako trikuharria baizik eta formazio naturala. Hala ere, 2021ean bertan, cromlech edo harrespil berri bat aurkitu genuen, eta 2022an beste bi topatu genuen, guztiz lurperatuta. Hori dela-eta, gaur egun zortzi monumentu ditugu. Eta baliteke 2024an besteren bat gehiago aurkitzea.

Monumentu multzo honek berezitasunen bat du?

Oiz mendian Bizkaiko historiaurreko hilobi-sekuentzia megalitiko luzeenetako bat dugu. Lau mila urte inguruko sekuentzia bati buruz hitz egiten ari gara, non hileta-praktiken bilakaera ikus daitekeen: ehorzketa kolektibo eta indibidualetik hasi, eta gorpuen errausketaraino. Horrez gain, historiaurrean dauden hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke bertan, eta hori ez da bate-erre arrunta: trikuharriak, harres-



Juan Carlos López Quintana.

pil-baratzeak eta iruinari bat. Eta seguruenik badago ere zista bat. Zistak hilobi megalitiko txikiak dira, gorpu bakarra edo bakar batzuk jasotzen zituztenak, eta historiaurreko fase berriago batean eraiki ziren.

Oraindik ere baduzue zer aztertu, beraz...

Bai, lanean dihardugu, baina hala ere dagoeneko badakigu Pirinio-tako harrespilen eremutik mendebaldarren dauden monumentuak direla hauek. Piriniotako harrespilak eremu oso mugatuan eraiki

ziren: Andorran, Huescan, Nafarroan eta Iparraldean hasi, eta Leizaran eta Oria ibaietaraino. Oizkoa, beraz, eremu horretatik kanpo dago, eta hori ere oso deigarria da.

Zer dela-eta hasi zineten Oizko ibilbide megalitiko honetan lan egiten?

Alde batetik, Agiri Arkeologia Elkartean buru-belarri ari gara lanean Bizkaiko monumentu megalitikoaren babesa sustatzeko, eta iruditzen zitzaigun Oizeko monumentuak ez zeudela oso ondo zainduta eta identifikatuta. Berrizko Udalak interes berezia zeukan gai honetan, eta 2021ean proiektu bat aurkeztu genuen Berrizko eta Mallabiko Udalak barne hartzen zituen. Gero, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso genuen 2022a eta 2024a bitartean proiektu burutzeko. Honen helburua da Oizko Estazio Megalitikoa babestea eta balio ematea, eta gizartearen sentsibilizazioa kultura-ondarea zaintzeko beharraz.

Noiz egongo da bisitatzeko moduan?

Duela urtebete bisita gidatua egin genuen, eta ehun lagunetik gora bildu genituen, baina asmoa da norbanakoak bere kabuz joatea. Horretarako teknologia berrietan oinarritutako baliabide didaktikoak izango dira eskuragarri 2024an, Mallabiko eta Berrizko Udalen eta Agiriren webgunetan. Halaber, monumentu bakoitzaren ondoan QRak jarriko dira, kontakizun historiko zientifikoa entzun eta berri-aurkitzea bertutualak ikusteko.

"Oizen historiaurreko hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke, eta hori ez da oso arrunta"

Aitzbeltz, magia handiko ondarea

LEIZEA ETA ONDARE PALEONTOLOGIKO ABERATSEKO KOBAZULOA



Aitzbeltz kobazuloko ataria eta sarrerako galeria. MORKAIKO-LEIZARPE TALDEA

Kondairak dio, duela urte asko, gaur hondoa jota dagoen Mendaroko Erentza baserrikoek morroia bidali zutela Munatxo baserri urrunduraino mandatu bat egitera, eta hark, biderik laburrena hartu zuela, Aitzbeltzeko leizetik eta izen bereko kobazulotik gertu pasatzen zen bidexka bat. Leize parera iritsi zenean, txakur handi bat irten ei zitzaion leizetik eta hiru egi handi esateko eskatu. Eta hasi ei zen morroia berbetan, ikaratuta: “Eguzkia beroa da, baina sua beroagoa; iletargia argia da, baina eguna argiagoa; eta txakur handiak ikusi ditut, baina zu bes-tekorik sekula ez”. Hiru egiak esandakoan, txakurrak hagin adar bat eman ei zion. Elezaharraren arabera, morroi hark ez zuen gehiago hitzik egin eta handik gutxira hil zen, Erentza baserrian.

1955ean, Aranzadi zientzia elkarteko espeleologo talde batek ezagutarazi zituen lehenengoz

Aitzbeltz leizearen barrunbeak. Juan San Martin eibartarra izan zen leizera sartzen lehenengoa, 1955eko ekainaren 24an, eta urte asko igaro badira ere orduetik, oraindik egin gabe dago barrunbe horren benetako miaketa eta topografia. Nolanahi ere, orduan batutako datuekin, gaur, nekez sinistu daiteke leizetik piztirik irten daitekeenik, 279 metroko sakonerako zuloa delako. Baina asmatutakotik adina izaten dute egitik kondaira askok, eta honek bere badu bere egi zatia. Izan ere, leize hartatik metro gutxira dagoen izen bereko kobazuloan izan ziren, bai, piztiak garai batean, historiaurrean gizakia ez ezik hartzak ere bizi izan zirelako han.

Aitzbeltz kobazuloa

Barrunbe zabal eta handia da Aitzbeltz kobazuloa eta XX. mendeko lehen hamarkadetan erromeriak ere egin izan zituzten han. Azke-

neko urteotan, tradizio zahar hori berreskuratu dute Mendaron Motxaila Elkartekoek eta udaberriaren iritsiera ospatzeko urtero egin ohi dute hara ostera, Motxaila Egunean.

Baina arkeologikoki ere interes handiko gunea da Aitzbeltz. Ondare paleontologiko handia du, bere galerien amaieran dagoen 35 metroko sakonerako leize tranpan harrapatuta. Aitzbeltzeko galerietan hamarnaka hezurtegi daude, eta hango hormetan tamaina guztietako atzamarkak antzeman daitezke. Eta jakina, ondare horri eman zaion balio eskasaren adierazle, grafiti-erregistroak ere badaude, batzuk XIX. mendekoak.

Ezbairik gabe, kontatzeko asko gordetzen du Aitzbeltzek, arkeologoek bakarrik deszifratu ahalko dutena. Bitartean, haitzuloa zain-tzean dagokigu bisitariok, etorkizunean kondairak barik Izarraitzeko ibar hauetako iragana kontatzeko bide eman diezagun.

Gerrak lagatako zaurietan zehar

EIBAR 1931-1945 EKIMENAK GERRA ZIBILAREN ERAGINA AZALERATZEN DU

Eibar estatuko lehen herria izan zen II. Errepublika aldarrikatzen, Gerra Zibileko gerra frontea izan zen 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte, eta bonbardaketen ondoren herria berreraiki behar izan zuten. Hori da, hain zuzen ere, Eibar 1931-1945 ekimenak herrian bertan eta mendian dauden ibilbideetan zehar erakusten diguna. Hainbat panel aurkitu ditzakegu azalpenekin eta, bertan agertzen diren QR kodeak eskaneatuz gero, argazkiak eta bideoak ere ikus daitezke (mugikorrerako aplikazioa ere badago).

Jesus Gutierrez historialaria Udalarekin elkarlanean ibili da ibilbideak prestatzen eta berak eman dizkigu ekimenaren nondik norakoak. Ordena kronologikoa jarraitu nahi izanez gero, herrian hasi beharko genuke ibilbidea, Ego Gain kalean. Hor egiten dute bat Alfak, langile autogestioko esperientzia gisa 1920tik kooperatiben proiektu aitzindari izandakoak, eta Untzaga plazak, udaletxearen kokalekua, II. Errepublikaren aldarrikapenaren sinboloa.

Eibarrek hamabost hegazkin-bonbardaketa jasan zituen, lehen 1936ko abuztuan eta azkena 1937ko apirilaren 26an. Okerrenak, baina, apirilaren 24koa eta 25koa izan ziren, Mussoliniren legioko italiar abiazioaren eskutik Hitlerren alemaniar Luftwaffearen agindupean.

Ibilaldiak Untzagara jotzen du gero. II. Errepublikaren aldarrikapenaren eta 1934ko urriko iraultzaren berri ematen da bertan,



Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa. EIBARKO UDALA



Informazio panelak jarri dituzte.

eta, besteak beste, udaletxeko fatxadan ikus daitezkeen zuloen jatorria zein den azaltzen da.

San Andres elizan du jarraipena ibilbideak. Udaletxearekin batera, ospe handieneko eraikina da Eibarren. Izan ere, XVI. mendean eraiki zuten eta haren in-

gurumaria oso kaltetuta atera zen gerratik. Elizaren kanpando-rreak, herriko eraikin garaiena zenez, Amuategui Batailoiarentzat behatoki lana egin zuen, eta matxinoek, eliza, kanoiez tiro egiteko erreferentziatzat hartu bazuten ere, fatxadak ez zuen kalterik jasan.

Herri barruko ibilbideak Bidebarrieta kalean jarraitzen du, gune hori izan baitzen gerrak eragindako kalteen ondoren aldaketa gehien izan zituena. Izan ere, eraikin apal ugari zegoen kale horretan eta kanoiek edo hegazkinen tiroek eragindako sua oso erraz zabaltzen zen aldameneko etxeetara. Gerra ostean, Bidebarrieta eta inguruko kaleetan aldaketa handiak egon ziren, kale zaharrak eta merkatu plaza betiko galdu ziren, eta, trukean, hiriratzatu guztiz ezberdina eraiki zen, baita merkatu plaza berria ere.

Urkizu auzoan Eibarko hiru enpresa sinbolikorekin egiten dugu topo: GAC, BH eta Orbea. Hain zuzen ere, Orbea zegoen tokian egiten da geldialdia eta 1840an armak fabrikatzeko sortu zela aipatzen da. I. Mundu Gerraren amaieraren eta 1929ko krisiaren ondorioz, armen negozioa agortu egin zen eta herriko hainbat enpresa produkzioa dibertsifikatzen hasi ziren. Urkizuko horiek, adibidez, bizikletak egiten hasi ziren. Gerra sasoian Orbean blindatuak fabrikatzeko sistema antolatu zen matxinoei aurre egiteko. Gainera, Euskal Herriko toki askotatik Errepublikaren defendatzaile ugari heldu ziren armak eskuratzeraz, herriko industria aprobeztatu.

Ibilbideak Errebal kalera jotzen du ondoren, eta han zegoen Agustindar Errekoletoen komentuko italiar eta alemaniar abazioen

aldetik jasan zuen zigorra aipatzen da, bertan hartu baitzuten aterpe hainbat batailoik.

Herriko ibilbidearekin amaitzeko, gerraostean hirigintzaren aldetik izandako aldaketa sakona azaltzen da Torbio Etxebarria kalean. Berreraikuntza-lanetan, gainera, gerrako preso askok hartu zuten parte.

Mendiko lubakiak

Mendian, Arrate, Santakurutze eta Akondia inguruan gerraren gordintasuna ikus daiteke, eta ibilbidea jarraituz lubakiak bisitatu daitezke. Gainera, Arraten,

Bi ibilbide daude gerrak Eibarren laga zuena ezagutzeko: hirian eta mendian

Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa dago (Arrateko aterpetxean), "lubaki bat errepresentatzen duena", Gutierrezen berbetan.

Interpretazio zentroak gerra sasoiko Eibarren eta inguruaren maketa modernoa, gerrako alde bien uniformeeekin jantzitako manikiak, borroka lekuetan erabilitako tresneria, Gerra Zibilaren gordinena gertutik bizi izan zutenen testigantzak biltzen dituen ikus-entzunezkoa eta garai hartako propaganda kartelak biltzen ditu.

Zentroa domeketan egoten da zabalik, 11:30etik 13:30era. Aterpearen inguruko informazio gehiago behar izanez gero, albergues@ateri.net helbidera idatzi daiteke; eta zentroari buruzko informazioa jasotzeko kultura@eibar.eus helbidera.

BELAUSTEGI
— BASERIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR 943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM

Ezkutuko altxorrak

MUFOMI FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA ETA HEZUR MUSEOA, BI PERLA

Begi bistakoa dena berehala egiten da ezagun, baina altxorrik ederrak ezkutuan gordeta egoten dira sarri, foku guztietatik urruti. Elgoibarren baditugu halakoak, eta horietako bi aipatuko ditugu gaur: Mufomi fosil eta mineralen museoa eta historiaurreari buruzko Hezur Museoa. Artetxe kaleko 28. zenbakian daude, bata bestearen parean, ezkutuan, baina gaur, argitara aterako ditugu.

Fosilak eta mineralak

1992an zabaldu zuten Mufomi Fosil eta Mineralen museoa Elgoibarren, baina gaur egun oraindik ere ezezaguna da jende askorentzat. 3.600 pieza inguru ditu erakusleihoetan bilduta. Gehienak fosilak dira, 2.300 inguru, eta gainerakoak mineralak. Hemen bertakoak eta kanpokoak, txikiak zein handiak, koloretakoak, hainbat forma eta materialetakoak... Pieza horiez gain, lurpeko faunaren aztarnak, meatzaritzako elementuak, eta animalien eskeleto eta burezurrak ere ikus daitezke.

Javi Vargas da museoaren sortzaile eta arima. Ez dago bakarrik baina, afizio bera duen Angel Mari Tobajas espeleologoarekin aritzen baita lanean, museoa bizirik mantentzeko. Azken berrikuntza duela urtebete zabaldu zuten: Arbasoen harpea.

Hiru urteko lanaren ostean, historiaurreko koba baten erreplika egin dute museoaren azpiko aldean. Bost gunetan banatu dute koba, eta bertan jasotako margoen bi-



Europako koba ezagunenetako irudien erreplikak marraztu dituzte koban.

tartez, labar artearen historia bildu dute. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako koba ezagunenetako irudi adierazgarrien kopiak egin dituzte, batzuk tamaina errealean eta besteak, eskalan. Altamira, La Araña, Ekain, Lascaux edo Chauvet kobazuloetako irudiak ikus daitezke, animalienak gehienak, baina lehen giza irudien errepresentazioak ere egin dituzte. Orain dela 67.000 urtekoak dira ikus daitezkeen lehen irudiak, eta orain dela 7.000-6.000 urtekoak azkenak. 45 bat metroko luzeera

Mufomi museo azpiko Arbasoen Harpeak 45 metroko luzeera dauka eta lau metroko altuera

dauka kobak, eta lau metroko altuera.

Dibulgazio eta pedagogia lana egitea da museoaren helburu nagusia, eta ikastetxeetan ikasitako hainbat gai bertatik bertara eza-gutzeko aukera eskaintzen du, historiako garai desberdinetan zehar bidaia eginez. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara, baina aurrez hitzordua eskatzea komeni da: 608 416 683 / info@mufomi.org.

Hezur Museoa

2019an zabaldu zuten Elgoibarko Hezur Museoa. Museo bitxia da, berezia, eta Euskal Herrian, bakarra. Artetxe kaleko 28. zenbakian dago, nahiko leku ezkutuan, baina barruan dagoenak bistaratzea merezi du. Jose Julian Marquez da museoaren sortzailea eta ar-



Hezur museoko hormak eta sabaia koba itxura ematen diote museoari.

duraduna, eta guzti honen oinarrian bere zaletasuna dago. Mimoz, pasioz eta maitasunez sortutako obra da Hezur Museoa, eta bertan dauden pieza eta elementu guztiak Marquezek berak eskuz egindakoak dira.

Atetik sartzerakoan historiaurreko museo batean barneratzen da bisitaria. Hormetan eta sabaian animalien irudiak ageri dira, okre koloreko tonu desberdinetan margotuta. Historiaurreko gizakiak kobetan horrelako irudiak marrazteko ohitura zeukan, eta horixe bera irudikatu nahi izan du Marquezek marrazki horiekin. Historiaurreko gizakiak marrazten zuen modu berean egin ditu marrazkiak, museoari kobazulo itxura emateko. Altamira, Ekain, Chauvet edo Lascaux bezalako kobetan aurkitutako margoen erreplikak dira.

Barrura sartu, eta horma-irudiekin batera, bitrina eta apaletan bildutako tresnak ikusten dira begiratu batean. Benetakoak dirudite, baina erreplikak dira. Interneten edo liburuetan aurkitzen ditu benetako piezak, eta haiei buruzko informazioa eta originalen detaile guztiak zaintzen ditu kopiak egiterakoan: materiala, irudiak, tamaina... Ordu askotako lana dago tresna bakoitzaren atzean.

Azken hamar urteotan egin ditu Marquezek tresna gehienak, bai-

Denetariko piezak aurki daitezke Hezur Museon, Brontze garaitik Paleolitikora artekoak

na arkeologiarako zaletasuna aspaldikoa du. 12 bat urte zituela, Elgoibarko Aizkora izenez ezagutzen den pieza aurkitu zuen Morterika inguruan, amurruinak arrantzatzen ari zela. Hasieran pentsatu zuen mineral bat zela, malakita hain justu ere, berde kolorekoa delako, baina antzina-ko tresnaren baten itxura ere hartu zion, eta hara non ikusi zuen gero anaiaren eskola-liburu batean berak aurkitutako aizkoraren parekoa! Brontze aroko aizkora zen, Kristo aurreko 1.500 urte ingurukoa. Orduan konturatu zen haren balioaz; aurkikuntza garrantzitsua izan zen hura Elgoibarrerako. Gaur egun, originala Euskal Herriko arkeologia gordailuan dago.

Denetariko piezak aurki ditza-kegu, Brontze Garaitik Paleolitiko garaira artekoak; kristo aurreko 1000. urtetik 700.000 urterakoak. Aurkikuntzak egiten dituztenean ohikoena izaten da piezak puskatuta aurkitzea, baina Marquezek haiei buruzko informazioa bildu eta osorik egiten ditu.

Historiaurreko gizakiak nola bizi ziren erakutsi nahi du Marquezek, eta tresnen bidez, haien inguruko azalpen guztiak ematen ditu bisita gidatuetan. Horrez gain, lan- tzean behin, erakustaldiak ere egiten ditu, garai hartako tresnak nola erabiltzen diren erakusteko, eta sua egiten ere irakasten die bisitariari, lehen gizakiak erabiltzen zituen teknikak erabilita.

Hezur museoa bisitatzeko hitzordua eskatu behar da: 650 353 566.

Oreka Art Gallery Soraluzen

IZEN HANDIA DUTEN ARTISTEN ERAKUSKETAK IZATEN DIRA ARTE GALERIAN

Soraluzen, bada Oreka izeneko arte galeria bat, Gabolats kalean, Oreka Art Gallery and Consulting du izena.

Debabarreneko herri txikienetako batean dago kokatuta eta galeria bi aretotan dago banatuta. Hilero, erakusketa berria inauguratzen dute bertan eta bisitari guztiendako dago zabalik, debalde, gainera

Izen handien eta ezagunen artelanak izaten ditu ikusgai, hemen inguruko artistenak zein urrunagokoenak.

Azkargorta, Errazu, Zumeta...

Gertukoen artean, Oreka Art Gallery bertatik bertara ezagutzen dute, adibidez, Ricardo Azkargorta eta

Luis Laskurain bergarrek, Jon Errazu eta Juan Manuel Arruabarrena soraluzetarrek, Vicente Iriondo eibartarrak, Victor Arrizabalaga mañariarrak, Keixeta zestoarrak, Aitor Ruiz de Eginio hernaniarrak, Xabier Egaña getxoztarrak, Angela Silva gasteiztarrak, Juan Ayesta beasaindarrak zein Usoa Zumeta usurbildarrak.

Peñalver, Lleó, Picasso...

Urrunagokoen artean, berriz, Manolo Oyonarte, Rafael Peñalver, Malu Riaza eta Ivan Araujo madrildarraren margolanak izan dira ikusgai Oreka Arten, Isabela Lleó mallorcarraren eskulturak, Laia Bedos Bonaterra kataluniarraren margolanak zein Barbara Stammel

alemaniarrarenak. Une honetan, Diego Montalbanen obraren mostra eder bat dago ikusgai.

Horiez guztiez aparte, Oreka Art galeriaren sortzaile, bultzatzaile eta kudeatzaile Alberto Ramirezzen eskutik, Pablo Picassoren, Eduardo Chillidaren zein Simon Arrieta-aren lanak ere ikusi ahal izan dituzte Soraluzeko arte galeria bisitatu izan dutenek.

Artea arnasbide

Ofizios protesigilea bada ere, artea du maite Alberto Ramirezek (Paradas-Sevilla, 1960). Esan izan du berarentzat artea arnasa hartzea dela. Egunero pintatzen du, beraz, obra emankorra du. Adibidez, historiako pintore nagusien bizi-



Manolo Oyonarte Oreka Art galerian.



R. Azkargorta eta A. Ramirez.



Keixeta galerian.



Vicente Iriondo eibartarra.

tzak eta obrak ulertu eta berrinterpretatzeko ahalegina egin du, Tapies, Picasso, Estevan Vicente, Palazuelo... Inspirazio iturri modura, berriz, XX. mendeko abangoardia guztiak aintzat hartzen ditu: impresionistak, Picassoren kubismoa, Kandinski espresionismoa, Malebichen eskola errusiarra...

Baina artista izatetik haratago artearen bultzatzaile sutsua da eta Soraluzera arte mugimenduak ekarri eta Soraluze arte bideetan jartzeko helburuarekin, Oreka Art Gallery zabaldu zuen, 2009an.

Galeriaren altruista

Soraluzeko arte galeriak erakundeen eta hainbat fundazioen laguntza izan zuen, baina haren funtzionamendua erabat altruista zen.

Erakusketen programazioaz, artistak ekartzeaz, haiei arreta

**Koldobika Jauregi,
Jose Zugasti, Bingen de Pedro, Mikel Lertxundi
eta Juan Jose Altuna
izango dira galerian**

emateaz eta erakusketen antolatetaz Alberto Ramirez arduratu izan da, eta, hori gutxi ez, eta erakusketa guztietarako sarrera debalde izan zen.

Azkenean, zailtasun ekonomikoak zirela eta, bi urte geroago Oreka Art galeriak atek itxi behar izan zituen.

Dena den, hamar urte beranduago, 2021ko martxoan, bigarren aldiz zabaldu zuen Alberto Ramirezek arte galeria, berritutako eta egokitutako lokal batean, oraingoan ere guztia bere eskutik. Galeriarren bigarren etapan, dagoeneko 20 erakusketa pasa izan dira ikusgai.



TIRO PITXON Jatetxea

Arrate auzoa, 5 EIBAR

943 20 88 59

Karta, eguneko menua, bereziak, pertsonalizatuak, ezkontzak, ospakizunak... Terraza eta bista ederrak

Berritasunak 2023-2024an

Etorkizunari dagokionez, indartsu dator 2023-2024 denboraldia. Alberto Ramirezek aurreratutakoaren arabera, dagoeneko hitzartuta ditu Koldobika Jauregi, Jose Zugasti, Mikel Lertxundi, Bingen de Pedro zein Juan Jose Altuna artisten lanekin erakusketak egingo direla. Gainera, berritasunak iragarri ditu datorren denboraldirako, besteak beste, obra publikoren bat ekartzeko aukera, artistaren baten obrak Oreka Arten zein Udalaren erakusketa gelan, bietan ipintzea, baita artelan batzuk kalean ipintzeko aukera izango dela ere.

Mélida
ostatua

CRMUA

Debabarreneko betiko ostatua

Bizkaia Etorbidea, 13 · ERMUA

943 17 00 19

www.melidaostatua.com

Gure ondare arkeologikoa, argitara

HAB HISTORIAURREKO BAILARA

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu Deba bailara". Hitz horiekin aurkeztu zuten martxoan Euskal Kostaldeko Geoparkeko eta Debako Udaleko kideek HAB Historiaurreko Bailara proiektuaren ibilbidea.

Maiatzaren bukaeran egin da, dena den, "aire zabalean sortutako museoa" bertatik bertara ezagutzeko lehen irteera edo bisita gidatu interpretatua. Bertan izan ziren, besteak beste, Aranzadi Zientzia Elkartekeko Xabier Peñalver arkeologoa, UPV/EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa, eta Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, hitzordura batutako hamarnaka lagunaren azalpenak ematen.

Gaur-gaurkoz, hiru kilometro eta erdiko ibilbidea eskaintzen zaio bisitariari (ez da zirkularra). Norbere kabuz erraz egiteko moduko bidea da, nahiko laua ia bere osotasunean, eta irisgarria.

Debako portuaren inguruan kokatu dute ibilbidearen hasiera eta, Anes Arrinda pasealekutik abiatuta, zubi alderantz segi eta lau zati edo gune nagusitan banatuta dago ondorengo bidea: gizakia eta itsasoa (itsasadarra), gizakia eta estuarioa (Casa Campo), zubia (bizitza nomada), eta bailara (Sasiolako bidea).

Hondartzatik gertu hasi eta Sasiola ingururaino iristen da, hortaz, eskualdeko ondare arkeologikoa argitara emateko helburuz sortutako proiektuaren lehen fasearen emaitza.



Anes Arrinda pasealekuan kokatu dute ibilbidearen hasiera. IZARO AULESTIARTE

Hainbat euskarri prestatu dituzte informazioa modu erakarri eta ulergarrian eskaintze aldera, eta indar handia dute, oro har, irudiek: Jose Ignacio Treku sortzaile debarrak, esate baterako, ilustrazio ikusgarriak egin ditu propio ibilbidean ezarri diren panel eta interpretazio guneetarako (ibilbidearen hasieran ezarri dute haren artelanik handiena).

Inguru hauetan aurkitutako apaingarri, seinale eta pieza askotan oinarritutako erreplikak ere ikusgai daude erakusmahaietan, baita fosilen erreplikak ere.

Deba bailaran duela 200.000 eta 15.000 urte bitartean bizi ziren gizakia, animalia eta haien arteko harremanak nolakoak ziren ezagu-tarazi nahi dute HABen bitartez. Gure geografian izan diren klima-aldaketek utzitako arrastoak aztertuz, Paleolitoko gizakien bizi-baldintzen eta baliabideen berri eman nahi zaie herritarrei.

"Geologia, klima aldaketak, basoak eta gizakien sorkuntzak zein animalien arrastoak aztertuz, paisaiaren eraldaketaz, eta horrekin batera gizakiaren garapenez jabetuko gara; itsasertza, ibaia, karst pinakularrak eta estuarioaren garrantzia zein den erakutsiz, eta, ondorioz, Debako paisaiari bere balioa emanez", azaldu dute proiektuaren arduradunek.

Azken urteotan, flyscharekin lotu izan da bereziki Euskal Kostaldeko Geoparkea. Baina "hori baino gehiago da", eta hori erakustera dator, hein handi batean, Historiaurreko Bailara proiektua.

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu bailara"



Adituak azalpenak ematen maiatzeko bisita gidatuan. IZARO AULESTIARTE

Barnealdeko geologiarekin lotuta, hain zuzen, bada beste "altxor" bat inguruotan: bereziki, Deba bailaran dauden kobazuloak eta aztarnategiak. Ermitia, Praileaitz, Langatxo, Iruroin... dira horren adibide. Asier Hilariok azaldu bezala, "Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan, hogeit bat, eta Deba da erdigunea. Hortaz, datu

asko ditugu aztertzeko. Eboluzioa irakurtzeko aukera ematen digu. Oso aukera ona da leku bakar batean historiaurrea ezagutzeko".

Proiektu oso baten lehen fasea Hainbat urtetako elkarlanaren emaitza da zientzia, artea eta komunikazioa uztartzen dituen HAB proiektua eta erakunde ezberdinen babesa du. Besteak beste, Aran-

"Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan eta Deba da erdigunea"

zadi elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa eta Asier Gomez paleontologoa, Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, Gordailua eta Bizkaiko Arkeologi Museoa ere bidelagun izan dituzte, haien zuzendaritza zientifikoa eta aholkuak aintzat hartuta landu baita egitasmoa.

Dena den, proiektu oso baten lehen fasea baino ez da orain arte egin den esku-hartzea eta jarraipena ematea aurreikusten dute. Oraingoan, Sasiolako begiratokian amaitzen da ibilbidea, eta Praileaitz eta Ermitiako haitzuloak daude han inguruan, bata bestearengandik oso gertu; bada, Praileaitz ingurua museo bihurtu eta Ermitian bisita gidatuak egitea da asmoa.

Haur, gazte eta helduentzako **surf ikastaroak**, hastapenetik hasi eta hobekuntzaraino. Maila guztietarako **materialaren alokairua** eta **aholkularitza profesionala**.

Hondartza kalea 20 - DEBA
688 743 863
eskola@yakosurf.com
denda@yakosurf.com

Amonite erraldoien gordeleku

MUTRIKUKO NAUTILUS IKASGUNE GEOLOGIKOA

Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean kokatuta, ageri-ageriko eta ezkutuko altxorrez betetako ingurune natural aparta dauka Mutrikuk; horren lekuko dira flysch beltza bezalako eremuak. Milioika urte atzera egin eta ingurune urruneko iraganari, jatorriari eta eraketari buruzko jakin-mina ase nahi dutenek Nautilus Ikasgune Geologikoan daukate horretarako aukera aproposa.

Ehunka bisitari erakartzen ditu urtero museoak eta, aretoa txikia bada ere, ez da nolanhikoa bertan ikusgai dagoen altxorra: euskal kostaldearen zein Lur planetaren iraganik urrunena ulertzeko ezinbesteko bihurtu den fosil bilduma zabal bat dago bertan.

Amoniteek duten tamaina, kalitatea eta dibertsitatea kontuan hartuta, gainera, literatura zientifikoan ezagutzen den bilduma handienetariko bat da Nautilusekoa.

Oso berezi egiten duen beste balio erantsi bat ere badauka bildumak, duela milioika urte itsasoan jaun eta jabe ziren izaki haien fosilak Mutrikuko zazpi hondartzen inguruetakolabarretan jasotakoak baitira.

Aurkikuntza horren arduradunak Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteak dira. Bikoteak, flysch beltzean egindako 40 urteko etengabeko lanean, 150 fosil inguru berreskuratu ditu. Material fosil horiekin, mundu mailako garrantzia duen bilduma paleontologikoa osatu dute.

Nautilus Mutrikuko Interpretazio Geologiko Zentroa ezagutzeko



Amonite ikusgarriek osatzen dute Nautiluseko bilduma. MUTRIKUKO UDALA

bisita eskaintza zabala dago uda sasoi honetan; bakarka zein taldeka ikus daiteke gunea, eta barne bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte (www.mutriku.eus webgunean ikusgai dago informazio guztia).

Ikasitakoa hurbilagoetik ezagutzen

Bestalde, Ikasgune Geologikoko esperientzia osatu nahi dutenek *Nautilus*, flyscheko fosilak bisita egiteko aukera ere badute. Geoparkeak antolatutako bisita gidatu horren baitan, lehenik, ikasgunea ezagutzen da eta, ondoren, aretoan ikusgai dauden fosilak

Munduan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetariko bat da

aurkitu zituzten itsaslabar basatiak ikusteko itsas irteera bat ere eskaintzen dute.

Mutrikuko portuan itsasontzia hartuta, aretoan ikasitakoa eta harkaitzetan dagoen ondare geologiko horren gako guztiak hurbilagoetik ezagutzeko parada izango dute, hortaz, bisitariek. Saturran hondartzaraino joango dira, kostalde honetako flysch beltz berezia azaleratzen den lekura, hain zuzen, eta zazpi hondartzen gune ezku horretan hainbat sekretu ezagutzeko aukera izango dute. Inguru horretan berreskuratu zituzten amonite erraldoiak zehazki non aurkitu zituzten erakusteaz gain, besteak beste, Bizkaiko Golkoa nola zabaldu zen ere azaldu ohi zaie bisitariei.

Nautilus, flyscheko fosilak bisita gidatuei buruzko informazio gehiagorako www.geoparkea.eus atarira jo daiteke.

AGENDA

DEBA

Uztailak 1	20:00	Hitzez Hitz Ikuskizuna	Musika, dantza, bertsoak	Zumardiko karpan
Uzt. 5, 12, 19, 26	19:00	"Marea gora" hitzaldi zikloa	Hitzaldiak	Kultur Elkartean
Uztailak 7	22:00	Bertso saioa: Oihane Perea, Miren Artetxe, Joanes Illarregi, Amets Arzallus	Bertsolaritza	Plaza Zaharrean
Uztailak 11	19:00	Ai Zapotxin! pailazoa	Ikuskizuna	Kultur Elkartean
Uztailak 14	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uzt. 19-23		Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 21	22:00	"Tonbola" antzerkia	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 28	22:00	Ghau	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Abuztuak 6-10		Itziarko Kopraixak	Jaiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18		San Roke jaiak	Jaiak	Herri osoan zehar

EIBAR

Uztailak 2	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 4-5-6	4 eta 6: 22:30 5ean: 20:00	Ikus-entzunezkoen astea	Ikus-entzunezkoak	San Andres elizako klastroan
Uztailak 7	20:00	Zip trio	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 7	20:30	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarría kalean
Uztailak 7, 8, 9, 14		Amaña auzoko jaiak	Jaiak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10		Lambretta Eibar XVII. Topaketa		
Uztailak 9	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	Amaña auzoan
Abuztuak 3, 10, 18, 25	22:00	Zinema Kalean	Zinea	Untzagan
Abuztuak 15		Andra Mari jaiak	Jaiak	Azitain auzoan

ELGOIBAR

Uztailak 1-2		Idotorbeko Jaiak	Jaiak	Idotorben
Uztailak 7-9		Urazandiko jaiak	Jaiak	Urazanden
Uztailak 21	22:30	Nazioarteko Folklore Jaialdia	Dantza	Maalako parkean
Uztailak 22	22:30	'Ilunpetik argira' Verdini dantza taldea	Dokumentala / Dantza	Maalako parkean
Uztailak 28-29		Azkue auzoko jaiak	Jaiak	Azkue auzoan
Abuztuak 6	Goizean	Santumotz Eguna	Jaiak	Santumotz lautadan
Abuztuak 5		Sallobente Jaiak	Jaiak	Sallobente auzoan
Abuztuak 23-28		San Bartolome Jaiak	Jaiak	Herrian zehar

ERMUA

Ek. 30 eta uzt. 1	17:00-22:00/04:00	XV. Elektrojaia	Musika	Martxoaren 8a plazan eta Betiondon
Uztailak 5-9		Sallabente auzoko jaiak	Jaiak	Sallabente auzoan
Uztailak 14	23:00	Sir Aligator's Company	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 15	23:30	Merina Gris eta Nogen	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	19:30	Goazeneko kideekin karaokea	Musika	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	20:30	Bertso jaialdia	Bertso saioa	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 18	22:30	Nhil	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 22	23:30	Álvaro de Luna	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 23	20:30	Anari	Kontzertua	Elizako arkupeetan
Uztailak 24-27		Santixau jaiak	Jaiak	Herriko txoko ezberdinetan

MALLABIA

Uztailak 1-2	Nesken frontenis txapelketa. Bikoteka eta banaka.	Kirol txapelketa	Herriko eta eskolako frontoietan
Abuztuak 14-16	Andra Mari jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuaren 31n	San Erroman jaiak	Jaiak	Zengotita auzoan

MENDARO

Ekainak 30	19:00	Gararock parkean: Amorante, Bikustik eta The Brian Valeta movement	Kontzertua	Herriko Enparantzan
Uztailak 14, 15, 16		Garagardo azoka	Jaia	San Agustin kulturegunean
Uztailak 19		Jazz Eguna	Kontzertua	Herriko gune desberdinetan
Uztailak 22-26		Santana Jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15		Andra Mari Jaiak	Jaiak	Azpilgoetan

MUTRIKU

Uztailak 1	23:00	Mutrikuko Musika Banda	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 8	23:00	Akordeoi taldea eta Madalen abesbatza	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 15	23:00	Gure Ametsa dantza taldea	Dantza	Goiko plaza
Uztailak 21-25		Malen jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Uztailak 22-24		Mater museo ontzia	Bisita	Portuan
Uztailak 28-31		Euskal Bateleroen eguna		
Uztailak 29	22:30	Mariachi Imperial	Kontzertua	Goiko plaza
Abuztuak 2, 9, 16	22:00	Aire libreko zinema	Zinema	Zabiel plaza
Abuztuak 5	22:30	Mikel Urdangarin	Kontzertua	Goiko plaza

SORALUZE

Ekainak 28	19:00	Encarnación Bermúdez	Argazki erakusketa	Oreka Art Gallery
Uztailak 2	10:00	Moto Club Plaentxi	Moto topaketa	Herrian
Uztailak 16-18		San Andresko jaiak	Jaiak	San Andres auzoa
Uztailak 22-26		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15-17		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar



DOLMENEN IBILBIDEA

BISITA GIDATUAK
 Uztailak 16, igandea (euskeraz)
 Uztailak 23, igandea (gaztelania)
 Abuztuak 17, osteguna (gaztelania)
 10:00etan Karakateko aparkalekuan

izen-ematea



657 794 677













Hogetik gora kultur jarduera dakartza aurtengo Gure Giroren programazioak

Kultur Elkartea, Jazzez Blai, Zuhatza-Kolore Anitz, Ikasten, Sensala Capoeira taldea, Debadezine eta Debako Udalaren arteko elkarlanari esker, badator hirugarren urtez Gure Giro. Uztailaren 1ean Kultur Elkarteko plazan eskainiko duten yoga tailerrarekin hasiko da bidea egiten aurtengo egitaraua, eta abuztuaren 5ean garai bateko bale talaiak ezagutzeko egingo den irteera gidatuarekin amaituko da. Bien bitartean, dena den, "mimo handiz" prestaturiko beste hainbat hitzordu izango dira aukeran.

Gure Giroren egitaraua osoa eta izen-emateak:



Kultur eragile eta sortzaileen dinamikak aktibatu, taldeen arteko sinergiak indartu eta herriko kultur eszenaren baitako proiektu ezberdinak garatzeko tresnak sortzeko helburuarekin jaio zen duela bi urte Gure Giro egitasmoa. Hasierako balore haiei eutsita eta eskura dituzten tresna guztiak baliatuta, aurtengoa ere askotariko hitzorduak antolatuko dituzte Gure Giroren baitan.

Besteak beste, yoga eta dantza tailerrak, *Hitzez Hitz* ikuskizuna, zinema saioak, hitzaldiak, bisuteriaz eramikoari buruzko tailerra, bisita gidatuak, capoeira topaketa, Jazzez Blai, umeentzako antzerkia eta rock kontzertuak egongo dira aukeran; guztira, hogetik gora kultur jarduera izango dira uztailaren 1etik abuztuaren 5era bitartean.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurtengoa ere Kultur Elkartea izango da ekintza gehieneko topagune. Elkarteko espazio ezberdinek beste behin ere formatu txiki eta

ertaineko saioak hartuko dituzte. Baina, Kultur Elkarteko espazio horietan ez ezik, Gaztetxean eta Ispiluen gelan ere egingo dira hitzordu gutxi batzuk.

Publiko zabalari eskainia

Arduradunek azpimarratu dute bertoko kultur sortzaileen lanari garrantzia eman eta haien jarduna herrian aurkezteko aukera eskaintzea dela egitasmoaren beste helburuetako bat. Hala, hainbat izango dira oholtzan edo tailerrak ematen ariko diren herritarrik: Alex Turrillas Aranzeta, Lourdes Gonzalez, Blues tailerreko musikariak, Pako Salegi, Josu Salegi eta Iñigo Ruiz de Gordejuela jazz musikariak, Hecetu Welo eta Dawanada rock taldeko kideak...

Ahalegin horretan, gainera, programazioan bildu dituzten ekintza horiek guztiak belaunaldi eta profil ezberdineko herritarrei zuzendurikoak direla ere gogorarazi dute. "Herritarren erantzuna ona izatea espero dugu".

Euskarazko sorkuntza erdigunean jartzeko bi proposamen



Aurtengo egitarauari bere ekarpena eginez, diziplina eta estilo ezberdineko euskarazko bi ikuskizun antolatu ditu Zuhatza-Kolore Anitzek.

Zumardiko karpan egingo den Pier Paul Berzaitzen *Hitzez Hitz* izango da lehena, uztailaren 1ean. Ipar Euskal Herriko kantagintzaren erreferenteetako bat da Berzaitz, *Baratze bat* abestia sortzeagatik, besteak beste. Oraingo honetan, ordea, ez da bakarrik ariko agertokian, musikak, dantzak eta bertso gintzak bat eginik, hamarnaka artista izango baititu bidaide.

Bigarren proposamena Ai, Zapotxin! pailazoaren eskutik etorriko da. Uztailaren 11n, Kultur Elkarteko plazan, etxeko txikienek (2-8 urte bitartekoek) *Esan, galtzerdi maitea!* saio musikatuan arratsalde-pasa eder bat egiteko aukera izango dute. Antzerkia, bertsoa eta umorea uztartzen ditu emanaldiak, euskaraz, noski.

Lau hitzaldik osatuko dute Ikastenek antolatutako *Marea gora* zikloa



Debabarreneko Ikasten Esperientzia Eskolak bestelako ekarpena egin dio egitarauari: *Marea gora* hitzaldi sorta. Guztira, lau hitzaldi hartuko ditu zikloak (hileko asteazken bakoitzeko bat) eta askotariko gaiak landuko dituzte bertan, esperientzia pertsonal eta profesional ezberdineko lau gonbidatu bereziren gidaritzapean.

Uztailaren 5ean, Maria Intxaustegi itsaspeko arkeologoa Antartikan egindako azken espedizioari buruz arituko da. Hilaren 12rako, aldiz, Mikel Ayestaran kazetaria gonbidatu dute, Ekialde Hurbileko gatazkak eta egungo egoeraz mintzo dadin. Uztailaren 19an, Ibai Inziarte ingeniaria puri-purian dagoen beste gai bati buruz ariko da: adimen artifiziala. Zikloari amaiera emango dion saioa hilaren 26an izango da, Debako zentral nuklearraren kontrako mugimenduko kide izan zen Pako Salegiren eskutik.



UZTAILAK 1 (LARUNBATA)

10:00 | Tailerra: Yoga* | Kultur Elkarteko plaza
Publiko guztiarentzat | Maialen Solabarrietaren eskutik.
20:00 | Hitzez Hitz ikuskizuna | Zumardiko karpa
Pier Paul Berzaitz. Musika, dantza, bertsoa...

UZTAILAK 2 (IGANDEA)

19:00 | Zinema | Kultur Elkarteko aretoa
Cruella | Komedia dramatikoak.

UZTAILAK 4 (ASTEARTEA)

Dantza ikastaroa* | Kultur Elkartea
11:30 | Koreografia solteak.
17:00 | Salsa, bachata eta txa-txa-txa.

UZTAILAK 5 (ASTEAZKENA)

19:00 | Marea gora - Hitzaldia | Kultur Elkarteko aretoa
Antartikatik gure itsas hondoraino - Maria Intxaustegi.

UZTAILAK 6 (OSTEGUNA)

Tailerra: Zeramika-bisuteria* | Kultur Elkartea
Hiru txanda: 10:00 | 12:00 | 17:00
12 urtetik gorakoentzat | Lourdes Gonzalezen eskutik.

UZTAILAK 8 (LARUNBATA)

10:00 | Irteera gidatua: La otra historia de Sasiola*
Plaza Zaharretik
Alex Turrillas Aranzetaren eskutik.
16:30 | Capoeira erakustaldia: Roda Norte X. Edizioa
Zumardiko kioskoa
Senzala Capoeira taldearen eskutik.

UZTAILAK 9 (IGANDEA)

19:00 | Zinema | Kultur Elkarteko aretoa
La hija oscura | Drama.

UZTAILAK 11 (ASTEARTEA)

19:00 | Umeentzako ikuskizuna | Kultur Elkartea
Ai Zapotxin! pailazoa: Esan, galtzerdi maitea!

UZTAILAK 12 (ASTEAZKENA)

19:00 | Marea gora - Hitzaldia | Kultur Elkarteko aretoa
Actualidad en Oriente Medio - Mikel Ayestaran.

Raku teknika japoniarren murgiltzeko zeramika-bisuteria tailerra



Aurtengo eskaintzako berritasunen artean 12 urtetik gorakoei zuzendutako zeramika-bisuteria tailerra dago. Lourdes Gonzalez artista debarrak emango du ikastaroa uztailearen 6an, hiru txandatan banatuta.

Kamiseta zahar bat eta "sortzen tarte eder bat igarotzeko gogoia" eramatea eskatu dute antolatzaileek.

Zeramikarekiko eta, oro har, artearekiko pasioa txiki-txikitatik dator kio Gonzalezi eta, hain zuzen ere, zaletasun hori tailerrean parte hartuko dutenei transmititzen saiatuko da. Bertaraten direnek XVI. mendean Japonian sortutako Raku teknika zertan datzan ikasiko dute. "Labean aurrez egositako pieza txiki batzuk eramango ditut eta horiei eman beharreko koloreak aukeratu eta suaren magiaren menpe jarri ondoren, zintzilikariak, belarritakoak edo bestelako piezak osatuko ditugu".

Hecetu Welo, jendaurreko lehen zuzenekora begira



Kultur Elkarteko plaza rock zaleen topaleku bihurtuko da uztailearen 29an. Dawanada *power trio* debarraren babesean, Hecetu Welo-kotalkideek azken hilabeteetan "etxean eta lokalean" landu dituzten kantak jendaurrean aurkezteko aukera izango dute. Pablo

Berrizbeitia taldeko abeslari debarraren esanetan, "gauzak ondo irtetzea" eta, batez ere, "zuzenekoaz gozatzea" da lehen kontzertu honi eskatzen diotena. Era berean, aurrerantzean ere zuzenekoak ematen jarraitzeko asmoa dute.

Grunge rocka ardatz hartuta, kanta propioz osaturiko erreperitorio anitza eskainiko dute. Hala ere, estilo bakarrera mugatu gabe, "beste rock estilo batzuetara; bluesera edo stonererra" hurbiltzen den taldea direla diote; ukitu "progresibo eta metaleroa" izan dezaketen zenbait abesti ere badituztela azaldu dute.

UZTAILAK 16 (IGANDEA)

19:00 | Zinema | Kultur Elkarteko aretoa

Seis días corrientes | Komedia.

UZTAILAK 19 (ASTEAZKENA)

19:00 | Marea gora - Hitzaldia | Kultur Elkarteko aretoa

Inteligencia artificial - Ibai Inziarte.

22:00 | Blues tailerra + Jam Session | Gaztetxea

UZTAILAK 20 (OSTEGUNA)

19:30 | Jazz kontzertua: Nevermind | Kultur Elkartea

UZTAILAK 21 (OSTIRALA)

18:00 | Blues masterclass: Iker Piris* | Ispiluen gela

UZTAILAK 22 (LARUNBATA)

09:45 | Irteera gidatua: Santa Maria Eliza* | Plaza Zaharra
Alex Turrillas Aranzetaren eskutik.

19:00 | Jazz kontzertua: Victor Anton Group | Kultur Elkartea

22:00 | Jazz kontzertua: Move | Kultur Elkartea

UZTAILAK 23 (IGANDEA)

13:00 | Swing kontzertua: The Swinghoppers | Kultur Elkartea

19:00 | Blues kontzertua: Iker Piris trio | Kultur Elkartea

UZTAILAK 26 (ASTEAZKENA)

19:00 | Marea gora - Hitzaldia | Kultur Elkarteko aretoa

De la central que pudo ser al Geoparque - Pako Salegi.

UZTAILAK 29 (LARUNBATA)

19:00 | Rock kontzertuak: Dawanada + Hecetu Welo
Kultur Elkartea

UZTAILAK 30 (IGANDEA)

19:00 | Zinema | Kultur Elkarteko aretoa

Suro | Drama / Thriller.

ABUZTUAK 5 (LARUNBATA)

09:30 | Irteera gidatua: Atalayas balleneras*

Irteera Itxaspera bus geltokitik

OHARRAK

Egitarauaren baitan antolatutako ekimen guztiak doakoak izan arren, izartxoak (*) duten ikastaro edo bisita gidatueta parte hartzeko ezinbestekoa da alde zuzenekoaren izena ematea. Izen-emate formularioak, egitaraua eta informazio osagarria:

www.labur.eus/guregiro2023



Hamar urte, Iturri Ondoan

Hamar urte dira aurtan Iturri Ondoan sortu zela eta badoa bidean aurrera, hasiera-hasieratik bereizgarri izan dituen oinarriak eta ezaugarriak alboratu gabe. Uztaileko ostiraletan ohikoak diren ekitaldiez gain, aurtengo egitarauak "berri edo berezitik ere" izango duela aurreratu dute antolatzaileek. Uztailaren 15a, esate baterako, hamarkada honetan egindakoa ospatzeko erabiliko dute; ez dute, ordea, guzti-guztia aurreratu, "zuen eta gure arteko sekretua izango da".

Iturri ondoan

"BERTSOLARIAK"
Uztailak 7 - 22:00
bertso saioa

"BEGIRADAK"
Uztailak 14 - 22:00
literatura,
irudiak,
musika

**"ITURRI ONDOAN
10 urte"**
Uztailak 15
iturri berriak,
bazkaria, festa

"TONBOLA"
Uztailak 21 - 22:00
antzerkia

"GHAU"
Uztailak 28 - 22:00
musika

Euskaraz sortu eta euskaraz pentsatutako diziplina desberdinetako kultur ekitaldiak antolatzea da Iturri Ondoan egitasmoaren ardatza. "Gaur egun erreferente diren kultur gileak Debara ekarriz, batetik, eta herriko jendea harremanetan jarritz, bertakoeekin ondutako ekimenak plazaratuz, bestetik". Debako Udaleko Amaia Zinkunegi euskara teknikariaren esanetan, hori izango da, ziurrenik, ekimena "gure kuttunenetakoa" izateko arrazoia.

Askotariko ekitaldiak egin dira urteotan Iturri Ondoan baitan, eta hori guztia antolatzeko orduan arreta berezia jarri da beti euskaraz sortzeko prest dauden herritarrengan. "Herriko ekimen horietan parte hartzeko jendea topatu, bilerak egin, entseguetan elkartu, eta egindakoa eskaintzea ederra da guretzat. Hamar urte hauetan harreman sare berriak eraiki ditugu horrela, euskaraz eta euskaratik; adin desberdinetako jendea batu dugu, inguru diferenteetako, pentsamolde aniztetakoa", laburbildu du Zinkunegik.

Egitasmoa "finkatu" egin dela uste dute antolatzaileek, publikoari dagokionean ere bai, ikus-entzule batzuen "fidelizazioa" ere lortu delako. "Batzuek badakite uztailean, ostiralero,



Begiradak literatur errezitaldi eta irudien proiezioan iaz parte hartu zuten herritarrak, agertokian. ANDERSALEGI

euskarazko kultur ekitaldi bat izango dutela Plaza Zaharrean eta zain egoten dira. Elkar ezagutzen dute eta zerbait partekatzen; lehen aipatutako komunitate baten parte sentitzen dira eta hori pozgarria da, oso, guretzat".

Zailtasunak eta erronkak

Lorpenak ez ezik, zailtasunak ere izan dira bidean. Bi aipatu ditu euskara teknikariak: "Bata, eguraldia; uztailen zeruari begira egotea tokatzen zaigu askotan, baina hor ezin dugu askorik egin. Bestea, herritarrekin garatzeko proiektu edo ideiak agortzen ari zaizkigula". Horixe, bada, aurrera begirako erronka. "Orain arte bezala, geuk sortu edo ondutako ekimenak egiten jarraitzeko hariak eta bideak ikustea, irudikatzea eta aurrera eramatea".

Azpitarratu duenez, "konbentzituta gaude hau badela euskal hizkuntza komunitatea sendotzeko, harro sentiarazteko eta birsortzeko modu bat. Eta herria egiteko modu bat, baita ere. Debak euskal herri izaten segi dezan bide bat, oholtza gainean zein aurrean daudenak elkarrekin egiten jarraituko dutena".

10. urtemuga betetzen den honetan, aurtengo egitarauak berri edo berezitik ere izango du. Ohiko saioez gain, uztailaren 15ean hamar

"Konbentzituta gaude hau badela euskal hizkuntza komunitatea sendotzeko, harro sentiarazteko eta birsortzeko modu bat. Eta herria egiteko modu bat, baita ere"

urteotan egindakoa ospatuko dute. "Eguerdian, formatu txikiko kultur ekitaldiak ikusi edo entzuteko aukera izango dugu herriko iturri berrietan —esan du Zinkunegik—. Baina ez dugu aurreratuko horien nondik norakoa; zuen eta gure arteko sekretua izango da. Iturri berri horietara ibilbidetxoak egin nahi izanez gero, gonbidapena jaso beharko duzue Turismo bulegoan uztailaren 9a baino lehen. Eta ez zaizue damutuko, ikusiko duzue. Eguerdian bazkari batean elkartuko gara; Galerna Festan izango diren gazteekin bat eginez. Eta arratsaldean, kantuak, jolasak, antzerkia... izango dituen ekitaldia egingo dugu, herritarrek prestatua".

Gainerakoan, aurten ere denetik izango du Iturri Ondoanek uztailako ostiral gauetan: bertsoak, Begiradak literatur errezitaldi eta irudien proiektzioa, antzerkia eta musika-dantza emanaldi bat (egitaraua ezkerreko orrialdean).

Ondarearen Europako sari entzutetsuenetako bat jaso dute Deba-Mutriku zubiaren birgaitze lanek



Europako Batzordeak eta Europa Nostra erakundeak Ondarearen Europako Sariaren eta Europa Nostra Sariaren irabazleak iragarri zituzten ekainaren 13an. 2002an sortutako sariak ondarearen arloko proiektu, ekimen eta pertsona adierazgarrien lanak aitortzen dituzte urtero, eta aurten 21 herrialdetako 30 proiektu saritu dituzte.

Ondarearen arloan Europaren ohore gorenarekin

saritutako proiektu horien artean dago Deba eta Mutriku batzen dituen oinezkoen zubiaren birgaitzea; *Kontserbazio eta berrerabilpen moldagarria* izeneko bederatzi sarietako bat eskaini diote. Epaimahaiak azpimarratu du "ingeniaritza zibilaren adibide bikaina" dela XIX. mendeko harrizko zubiaren birgaitzea. "Ahaztutako materialei eta teknikei buruzko ikerketa historiko zabala behar izan zen, eta diziplinarteko lankidetzak teknikoaz baliatu".

Publikoaren saria irabazteko hautagai

Sariak irailaren 28an banatuko dituzte Venezian. Ekitaldian, gainera, aurtengo irabazleen artean aukeratutako Grand Prix eta Publikoaren Sariaren irabazleak ere iragarriko dituzte.

Azken sari hori herritarrek aukeratu ahal izango dute. Deba-Mutrikuko zubiaren birgaitzeak, beraz, beste 10.000 euroko saria irabazteko aukera izango du. Interesa dutenek vote.europanostra.org estekan sartuta eman dezakete botoa.

Nazioarteko Illustraziencia sarietako bat lortu du Maddi Astigarragak

Iaz Illustraziencia sarietara aurkeztu eta 40 lagun artean finalista hautatu zuten Maddi Astigarraga Bergara. Eta, aurtengo deialdian, pauso bat harago joatea lortu du ilustratzaile zientifiko debarrak, finalista izatetik sari nagusietako baten jabe izatera pasa baita.

Ekainean iragarri ditu nazioarteko X. Illustraziencia sarietako aurtengo irabazleak. Hiru sari nagusi banatu ditu epaimahaiak eta horietako bat, Cajal Urtea (Año Cajal) kategoriarik dagokiona, Astigarragak lortu du, giza neuronek har ditzaketen forma harrigarriak irudikatzen dituen lanarekin (*Diversidad morfológica de las neuronas humanas*). 1.000 euroko saria eman diote.

Marina Lezcano Herreren *El solsticio de invierno en los dólmenes de Sedano y Las Loras* lana saritu dute Ilustrazio Zientifikoaren kategorian, eta Denitsa Penevaren *Dormice of Europe (Gliridae)* lana, aldiz, Ilustrazio Naturalista deritzon sailean.

500dik gora ilustrazio lehiak


Aipatutako hiru sari nagusi horiez gain, beste hiru ilustraziori aipamen berezia egin die epaimahaiak



eta publikoak hautatu du beste lanetako bat, boto bidez. Illustraziencia Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiaren (CSIC) eta Natur Zientzien Museo Nazionalaren ekimenez antolatzen da, Komunikazio Zientifikorako Elkarte Katalanarekin elkarlanean.

Aurten 500dik gora ilustrazio egon dira lehiak eta horietatik 40 aztertu ditu epaimahaia osatu duen adituetaldek. Irailera arte, erakusketa batean ikusgai izango dira lanak Natur Zientzien Museo Nazionalean.

Kimetz Oñederra hirugarren, Urrezko Aizkolarien finalean



Joan den ekainaren 4an 26. Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren finalak jokatu ziren eta bertan parte hartu zutenen artean izan zen Kimetz Oñederra

Aittola. Debarra, zehazki, 18 urtez azpiko kategorian aritu zen, Igoi Pikabea hernaniarraren eta Unai Etxeberria *Osinalde* ezkiotarraren aurka.

Osatu beharreko lanei dagokienean, 45 ontzako launa pago enbor moztu behar zituzten. Oñederra proba irabazteko gogor saiatu zen, baina atzean geratu zen eta ez zuen txapela janzteko aukerarik izan. Guztira 12 minutu eta 50 segundo behar izan zituen proba amaitzeko eta hirugarren sailkatu zen.

Pikabea nagusitu zen norgehiagokan; 11 minutu eta 12 segundoko markarekin lortu zuen jokoan zegoen txapela. Etxeberriak, aldiz, 32 segundo gehiago behar izan zituen bigarren postua erdiesteko.

Uztailaren 1ean jokatu da IX. Flysch Beltza Igeriketa proba

Eibar Igerixan Kirol Klubak antolatuta, Flysch Beltza igeriketa zeharkaldi bikoitza egingo dute uztailaren 1ean. Aurten ere, Euskal Kostaldeko Geoparkearen flyscharen itsasbidea jarraitu beharko dute aurrez izena eman dutenek: alde batetik, Mutrikuko Saturrarán hondartzan hasi eta Debako Santiago hondartzaraino doan 6.500 metroko ibilbide luzea egiteko aukera izango dute, eta, bestetik, Mutrikuko portua eta Debako hondartza batzen dituen 3.000 metroko ibilbide motza hautatu dezakete.

Ibilbide luzea egitea aukeratzen dutenak 11:30ean uretaratuko dira eta motzean parte hartuko



dutenak, berriz, ordubete beranduago hasiko dira.

Antolatzaileek azaldu dutenez, nahi dutenek irteera punturaino joateko autobus zerbitzu berezia ere izango dute aurten erabilgarri. Saturraránera doan lehenbiziko autobusa 10:00etan irtengo da Debatik eta Mutrikura doan lehena, berriz, 11:00etan.

Zabalik dago Itziar Trail mendi lasterketan izena emateko epea

Abuztuaren 5ean izango da Itziar Trail mendi lasterketa eta bertan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago abuztuaren 3ra arte. 150 korrikalarientzat egongo da tokia eta *kirolprobak.com* webgunearen bidez egin behar dira inskripzioak.

Ohi bezala, ibilbide bakarra izango da aukeran. 16:00etan plaza ondotik abiatuko da lasterketa eta, berritoki hasiera tokira itzuli bitartean, 13,9 kilometroko distantzia osatu beharko da.

Lehen hiru gizon eta emakumeentzat egongo dira sariak. Horrez gain, beste bi sari berezi ere banatuko dituzte. Bertoko lehenak sari berezia jasoko du, baita lehen kilometroa azkarren egiten duenak ere.

Irene Sarrionandiak Camille Extreme osatzea lortu du beste behin ere

74 urterekin marka guztiak hausten jarraitzen du Irene Sarrionandiak. Aurten ere Camille Extreme mendi lasterketan parte hartu, eta 31,6 kilometroko eta 2.044 metroko desnibel positiboa dituen ibilbide zorrotz zein teknikoa 06:15:58an amaitzea lortu du. Zehazki, irabazleak baino 32 minutu gehiago behar izan zituen proba bukatzeko.

Mendiko lasterketen munduan aitzindaria da Sarrionandia. 45 urte baino gehiago daramatza korrika, eta bera da Camille Extremerean edizio guztietan parte hartu duen kirolari bakarra. Lasterketako emakumezkoen lehenengo postuaren sariak kirolariaren izena darama 2022az gozotik.

Uztaila

UZT. 1 - ABU. 5

GURE GIRO

Egitarau osoa ale honetako 13-15 orrialdeetan.



UZT. 1 (LARUNBATA)

IX. FLYSCH BELTZA IGERIKETA PROBA

11:30 Saturraranetik irteera.
12:30 Mutrikutik irteera.

BISITA GIDATUA

15:30 'Debatik Zumaiara itsasontziz'. Anes Arrinda pasealekutik (pantalana).

UZT. 3 (ASTELEHENA)

BISITA GIDATUA

10:00 'Flysch beltza'. Turismo bulegotik.
17:30 'Debatik Zumaiara itsasontziz'. Anes Arrinda pasealekutik (pantalana).

FRANTZIAKO TOURRA

14:40 Tropela Debara iritsiko da.

UZT. 5 (ASTEAZKENA)

ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Gaztetxea.

UZT. 7, 14, 15, 21, 28

ITURRI ONDOAN

Egitarau osoa ale honetako 16-17 orrialdeetan.



UZT. 12 (ASTEAZKENA)

ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Gaztetxea.

UZT. 13 (OSTEGUNA)

GAZTEFUTBOL

10:00 (2008-2010 artean jaiotakoentzat). Errotazar futbol zelaia. Gaztelekuaren eskutik.

UMEEN EGUNEKO JAIALDIKO ENTSEGUA

19:00 Ifar kaleko Luzaro ikastetxea.

UZT. 15 (LARUNBATA)

GALERNA FESTA

11:00 Kuadrillen arteko jolasak. Zumardia.
15:00 Bazkari herrikoia. Zumardiko karpa.
20:00 Txaranga. Herriko kaleetan.
22:00 Kontzertuak: Debrass Band + DJ. Zumardiko karpa.

UZT. 17-19

RAFTING

08:00 Irteera Murillo de Gallego-ra (2008koentzat). Gaztelekuaren eskutik.

UZT. 21 (OSTIRALA)

SUNSET PARTY

Santa Katalina (2009koentzat). Gaztelekuaren eskutik.

UZT. 22 (LARUNBATA)

VIII. FLYSCH ORGANO KONTZERTUA

20:00 Jone Martinez eta Miriam Cepeda. Santa Maria eliza.

BISITA GIDATUA

11:00 'Lastur familian'. Lasturko plazatik.

UZT. 24 (ASTELEHENA)

BISITA GIDATUA

10:00 'Gotikoaren altxorra Deban'. Turismo bulegotik.

UZT. 26 (ASTEAZKENA)

GAUBELA

Debako hondartza. (2008koentzat). Gaztelekuaren eskutik.

ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Gaztetxea.

UZT. 29 (LARUNBATA)

VIII. FLYSCH ORGANO KONTZERTUA

20:00 Miriam Hontana eta Daniel Oyarzabal. Santa Maria eliza.

DANTZALDIA

23:00 Musika Bandaren eskutik. Foruen Plaza.



IKASTAROAK

Uztaileko eskaintza: IKASTAROAK KZgunean.

Aurrez aurrekoak, urrunekoak eta bideokonferentzia bidezkoak. Ordutegia: uztailearen 1etik 15era, 16:00etatik 20:00etara.

IKASTAROAK Kiroldegian

Spinning, pilates, arrauna, fitness, spinning birtuala, fitboxe, multifitness eta crossfit. Izen-ematea kiroldegian, 943 19 22 62 telefonoan edo kiroldegia@deba.eus-en.



ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO uztailak 1, 2, 10, 11, 12, 13.

ZALDUEGI uztailak 14, 15, 16, 24, 25, 26, 27.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA ZUAZO
uztailak 1, 22 eta 29

ZALDUEGI
uztailak 8 eta 15

Jarraitu gaitzazu!

  berriketan.eus
Zuhatza Euskara Elkartea



IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan uztailaren 19a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com | 943 19 13 83

Uzuri
optika audio



RPS:183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Gestilan
asesores aholkulariak

DEBA | Bulego berria

Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

 [asesoriagestilan](https://www.instagram.com/asesoriagestilan)  gestilan.es  gestilan@gestilan.es

Deba-Itziar BIRA



MAIATZEKO SABIJUNAK

1. **Saria:** Amaia Larrañaga, Ainitze Agirrezabala, Irene Aizpitarte.
2. **Saria:** Kike Sarasketa, Nerea Allika, Amaia Botxo, Eneritz Tambo, Nerea Soto, Oihana Larrañaga, Idurre Furones, Itsasne Aldabaldetretu, Mari Becerra, Jose Luis Mugarza.



1 > Zenbatgarren Gure Giro izango da aurtengoa?



2 > Zein da lurra iraultzeko erabiltzen zen tresnaren izena?

- a) Eskuarea
- b) Pikotxa
- d) Laia
- e) Sega



3 > Zein da ezkerreko argazkian agertzen den arraina?



4 > Zein zen Joakin Iturbe XVIII. mendeko bidelapuraren ezizena?

- a) Patakon
- b) Santua
- d) Santxo
- e) Tartalo



5 > Ilustraciencia lehiaketan zein kategoriari saritu dute Maddi Astigarraga?



6 > Zein postutan geratu da Kimetz Oñederra aurtengo Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan?

- a) 1. postuan
- b) 2. postuan
- d) 3. postuan
- e) 4. postuan

EKAINEKO BIRA

Parte hartzeko: www.labur.eus/bira_ekaina
Erantzunak bidaltzeko azken eguna: uztailak 14
 Irabazleen izenak datorren alean argitaratuko dira.
 Animatu eta parte hartu!

SARIAK

- Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean **Max arotzak** egindako egurrezko hiru pieza banatuko dira.
- Parte hartzaile guztien artean **Max arotzak** egindako egurrezko hiru lorontzi banatuko dira.

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

BURU - ZURI
 Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
 Tel.: 943 191 034
 20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN
 ileapaindegia

943 19 21 09
 Hondartza kalea, 2
 Deba

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eu

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

INGELES
AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure bastorrak"

Lersundi kalea 6 - 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20 - E-mail: ieraenea@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



**A. Esnaola
P. Echeverria**

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@pyadent

CONSERVAS
YURRITA

1867

GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN
ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren udako ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera 09:00-18:30

Larunbatak 10:00-14:00



Online salmenta:

www.yurritagastronomika.com



sarean edota dendan erosteagatik

% 20ko deskontua

kupoi hau aurkeztuz

ZUZENKO SALMENTAN

50€tik gorako erosketetan
apirilean zehar erabilgarri.

ONLINE SALMENTAN

50€tik gorako erosketetan
ondorengo kupoia sartuz:
BERRILAGUN